

II. Errepublikaren 75garren urteurrena gogoratzuz, bandera errepublikarra jarri dute

Eibarren aldarrikatu zen, gaurko egun batez. Hernaniko Udalak egun batzuk beranduago eman zion babesa Errepublikari, 1931ko apirilaren 18an.

GAUR, apirilaren 14a, Igarren Errepublika aldarrikatu zela 75garren urteurrena ospatuko da. 1931ean aldarrikatu zen Errepublika, lehenik Eibarren, eta gero gainerako lekuetan.

Hernanin Julio Ubarretxena zegoen alkate garai haietan. Apirilaren 18an, nazionalistek aurkeztutako mozio bat onartu zuen Udalak, Eibarren aldarrikatu berria zen Errepublikari babesa emateko, "euskal errepublika" aldarrikatu zuten Udalean: "gainerako errepublika iberiarrekin konfederaturik". Horretaz gain, Plaza Nagusia eta Alfontso XIII kalea, Errepublika Plaza eta Kale Nagusia izendatu zituzten egun batzuk beranduago, apirilaren 22an.

Aldaketa garaia

Errepublikarekin batera aldaketa ugari izan ziren. Esaterako, bozkatzeko eskubidea eskuratu zuten, bai gizon eta baita emakumeek ere. 1931ko ekainean izan zen lehen bozketan Hernanin eta ezkeriarrek



Bandera errepublikarra, ikurrina eta 'Euskal Presoak Euskal Herrira' banderola, Zinkoenean.

irabazi zuten; hortik bi urtera, aldiz, abertzaleak izan ziren garaile.

Erreketen nafarrak eta falan-

gista gailegoak 1936ko irailean herrian sartu zirenean amaitu zuten Errepublikarekin. Baina bandera errepublikanoa urtez

urte azaldu izan da apirilaren 14ean, baita klandestinitatean jarrita ere, herriko toki ezagunenetan, gaur bezalaxe. ||

ELIZA

Gaur Gurutzbideak

Gaur, Ostiral Santu eguna, Gurutzbideak izango dira. Goizeko 08:30etan, Santa Barbarakoa izango da; goizeko 09:00etan, berriz, San Antonio parrokikoa; goizeko 10:00etan San Jose Langilea Parrokikoa eta goizeko 11:30etan San Joan Bataiatzailekoa. Horrez gain, pasio ospakizunak izango dira arratsaldean: San Antonio, 18:00etan; San Joan Bataiatzailean 18:30etan; eta San Jose Langilean, 19:00etan. ||

ETXERAT ELKARTEA

Enkartelada gaur

Etxerat elkarteak enkartelada deitu du gaur, arratsaldeko 20:00etan, Gudarien plazatik abiatuta, errepresaliatuen eskubideak aldarrikatu eta defendatzeko. Lema *Errepresaliatutak etxera* izango da. Etxerat elkarteak dei egin die herritar guztiei enkarteladara azaltzeko. ||

FUTBOLIN TXAPELKETA

Bixintxo-Jesus, Garin tabernako txapelkun

Bixintxo eta Jesusek irabazi dute Garin tabernako futbolin txapelketa, finala Txato eta Insumisori 12-6 irabazita. Hirugarren, Eras-Xixa gelditu dira, Zesar-Itzarri 10-8 irabazita. ||

PELOTA - BIGARREN MAILAKO BURUZ BURUKOA

Oier Mendizabalek igandean hasiko du buruz buruko txapelketa Beotibarren, Arbizuren kontra

OIER Mendizabalek igandean hasiko du bigarren mailako buruz buruko txapelketa, Arturo Arbizuren kontra. Partidua Tolosako Beotibar pelotalekuan izango da, arra-

tsaldeko 17:00etan hasiko den jaialdiko hirugarrena.

Kontrario gogorra

Mendizabalek profesional mailako lehenengo buruz bu-

rukua jokatuko du etzi eta ez zaio nolana hiko aurkaria egokitu: Arturo Arbizu. 33 urteko iruindarrak sei urte badaramazki profesional mailan eta zakur zaharra da.

Aurreko koadroetan asko jokatzen du Arbizuk eta Mendizabalek atzeko koadroetan jokatu arazi beharko dio nafarrari, koadro horietan gehiago baita hernaniarra.

Jaialdian hiru partidu

Igandeko jaialdian beste bi partidu ere badira Beotibarren: lehen partidua, Koka-Eskudero/Esain-Rai; eta bigarrena Olaizola I-Leiza. ||

URGASKA, S.L.

Gas instalakuntza
Material salmenta

Aristizabal 9 Behea

K21 ☎ 943 33 37 40

* Asistentzia teknikoa, gas eta berogintzan.
* Gas propano, butano eta naturala: mantenua
* Iturgintza

kizki

taberna Nagusia, 29
20115 Astigarraga

ASTIGARRAGAKO
KIZKI TABERNA

SALGAI

INTERESATUAK DEITU:
617 435 750

el okisha
jatetxea

Koadrila afariak,
despedidak, urtebetetzeak
eta abarrerako
enkarguak hartzen ditugu.

Bertako janariak
eta
Arabiar platerak

☎ 943 55 13 50

Lizeaga kalea, 4

TELEFONOAK: Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DYA: 943 464622 Autobusak: Herri barrukoak: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103 1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 1 FARMAZIAK GAUR ETA BIHAR 1 Egunez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793 1 Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA GAUR Goizean zerua oskarbi izango da eta eguerdi aldera, bai eguzkiaren eta baita hego-ekialdeko haizearen eraginez, dexente epelduko da giroa. Arratsaldean lainoak azalduko dira, baina euririk ez du egingo. BIHAR Eguraldi aldrebesa izango da biharkoa. Laino ugari izango dira eta tarteka zaparradak, baina eguzkia ere ikusi ahal izango da. Temperatura maximoak behera egingo du. (euskalmet)

Festarako musika igandean Oialume dantzalekuko diskojaian

'Abiba' taldea izango da, musika jartzaile, dantzari eta argi ikuskizunarekin. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da.

IGANDEAN, hilaren 16an, *Abiba* taldearekin diskojaia izango da Oialume dantzalekuan. Estilo ezberdinetan adituak diren musika jartzaileek, dantzariak eta argi ikuskizunak osatzen dute *Abiba* taldearen emanaldia. Orain artean Oialumen izan direnetan arrakasta handia izan dute, dantzalekua jendez bete baita. Igandeko emanaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da eta goizaldera arte iraungo du.

Denboraldi honetako azkeneko diskojaia maiatzaren 29an, larunbatarekin, izango da, eta egun horretan ere *Abiba* taldekoak ariko dira.



Musika jartzaile eta dantzariak ariko dira Oialumen.

Musika jartzaileak Play aretoan gaurtik igandera

Ostiral, larunbat eta igandean saioak antolatu dituzte estilo ezberdinetan.

ASTERO bezala musika jartzaileekin saioak antolatu dituzte Play aretoan. Gaur *Bumping Lovers III* festa dago. Festa honetan bumping musika estiloko disko jartzaileak izango dira DJ. Gordy, DJ. Miki, DJ. Lalo, DJ. Bou, DJ. Mediola eta DJ. Oscar. Festa gaueko 23:00etan hasiko da gaur eta goizaldeko 06:30ak arte iraungo du. Sarreak 10 euro balio du.

Bihar eta etzi, techno, minimal eta trance musika
Ostiralean *Play The Rave* festa

antolatu dute, Pepote, Damon Jee, Paula Cazenave, Iker Allo, Fi eta Brujo musika jartzaileekin. Techno eta minimal musika jarriko dute gaueko 23:00etatik goizaldeko 06:30ak arte. Sarreak 15 euro balio ditu. Horrez gain Play Club gunean beste 5 musika jartzaile izango dira.

Igandean, *II Megarave central fantasy* festa antolatu dute eta trance estiloko musika jarriko dute: DJ Nano, Raul Cremona, Gary DF, Hydro, DJ Yari eta Ivan The Muruk. Gaueko 23:00etan hasita. ||

Jasota Bezala

6 Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefona 7 Gehienez 1.000 karaktere onartuko dira 4 Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Aberri egun bateratzailea
ETAren su eten iraunkorrek itxaropenaren atea ireki du. Hasteko, indarkeriaren adierazpen ezberdin eta zentzugabeak pairatu dutenen itxaropena; bide batez, berezkoak zaizkion arazoak gailentzeko, elkarriketaren bidezko irtenbide demokratikoak ase dituen euskal gizartearen itxaropena; eta, bereziki, Euskal Herriaren aitortpena, berorren aske erabakitzearen ahalmena, eta zazpi herrialdetako erkidego sozio-linguistiko eta kulturalaren ezinbesteko errealitate politiko eta identitario anitza aintzat hartuz, denboran zehar euskal ezkerren batasunarekin amets egin dugunon itxaropena ere.

Abian den prozesuak, indarkeriarik gabeko etorkizunerantz eraman behar gaitu, esparru politiko integratzaileen bidean, gure herriaren aitortpenaren ildoan, non ezker eraldatzaileak gehiengo politiko eta soziala arrakastaz irabaz dezakeen Euskal Herri osoan.

Une historiko honetan, EZKER BATUA Berdeak taldeko Batzen korrantea osatzen dugunok, honako manifestu hau sinatzeraz gero, martxoaren 22an aurrera egindako elkarriketa politikoaren prozesua bultzatzeko asmo apalaz; adostuko diren lanabes politikoak onartuz, salbuespenik gabeko giza eskubide guztien defentsan, gatazkaren humanizazioarekin erabat konbentziturak, eta, ondorioz, era bateko zein besteko biktimen erreparazioa, kartzetako egoera, presoan gerturatzea eta kale-ratze progresiboa gogoan hartuz. Abian den prozesu politikoak, halaber, EAE, NFE, eta, kasu bada, Iparraldeko gizarteek, beren etorkizuna aske erabakitzeko ahalmena praktikan bideratzeko eskubidearen bide oztopatu eta korapilatsutik gidatu beharko gaitu. Salbuespenik gabe. Inposaketarik gabe.

Gure egiten dugun aberri egunaren ospakizunean, beraz,

Bigarren Errepublikaren 75. urteurren ahaztezinari eutsiz eta Hirugarrenaren hodeiertzari begirada etengabe, Euskal Herriko emakume eta gizonen arteko topagunea, elkarriketa demokratikoa, akordio anitza eta behar besteko kontsultak praktikan bideratu ahal izatea aldarrikatu nahi dugu, muga bakarra, herriaren borondatea izanik.

Guztira, eta Estatuko beste zenbait nazio anitzetan gertatzen den bezala, aberri egun bateratu eta bateratzailea ospatuko dugun eguna urrun ez dagoelakoan, errealitate politiko eta identitario ezberdinen ginetik.

Jesus Uzkudun, Carmen Garcia, Ander Rodriguez Lejarza, Begoña Vesga, Arturo Muñoz, Martín Calvo, Iñaki Saldaña, Rikardo Ortega, Roberto de Gracia, Iñaki Garcia eta Pablo Aretxabala.

Batzen-Ezker Batua berdeak

ERREMONTA - 'Insalus' masterra

Lizasoren ezustekoa Galarretan

Lizaso-Zeberio II-k irabazi egin zioten atzo Eizagirre eta Ezkurrari (29-40). Lizasok, sailkapenean azkenekoa, ezustean harrapatu zituen guztiak eta partidu ederra egin zuen. Bihar hiru erremontista beste hiruren kontra arituko dira, *Insalus* master ikusgarrian beste partidu batean: Zeberio II-Altuna I-Lizaso/Ezkurra-Altuna II-Eizagirre. Jaialdia 16:00etan hasiko da. ||

ZINEA

Asteburu honetan ez da saiorik izango Biterin

Biteritik jakinarazi dutenez, asteburu honetan ez da zine saiorik izango, ez haurrentzat eta ezta helduentzat ere. ||

Eskelak

II URTEURRENA

Joxe Mari Urdanpilleta Otegi

2004ko apirilaren 15ean hil zen, 75 urte zituela

- Goian Bego -

Berataz oroitzean, otoitz bat, sortu dadila gure bihotzean



Emazte eta familiak oroigarri meza eskaini nahi diogu, eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.

Urtebetetzeko meza datorren **igandean, apirilak 16, goizeko 10:30etan** Ereñotzuko Antonio Deunaren parrokian. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Ereñotzu 16

Ereñotzun, 2006ko apirilaren 14an

IRAGARKI MERKEAK

Yolanda estetika zentrua. Dietista Aurora Cid; dieta pertsonalizatuak. Depilazioa diodo laseraz. Masaje deportiboa eta oin erreflexologia. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**

Arutz profesionalak lan bikiak egingo lituzke. **Deitu: 656 78 64 15**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

Amegar
Etxe Tresnak

Altzariak

Txirrita Kalea 15 - Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03 - Izpizua 27

PROKOLOR ZENTRUA
MARGOAK
Landaribar, s.l.

Industria eta dekoraziorako pinturak
Lurrak jartzen ditugu
Pintatutako paperak

Kardaberaz 45
Tel.: 943 55 21 31